BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

5691

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 2koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (394/2011 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (394/2011 prozedura laburtua) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko ekainaren 9ko Ebazpenaren kontra aurkeztu da; ebazpen horren bitartez, Tiro polizialeko instruktoreen prestakuntza-aldirako eta trebakuntzaldirako deia egiten da. Eta, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epean ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2011ko azaroaren 2a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.